
METABOLIK BIOHACKLAB

BIOHACKLAB

Metabolik Udondo Gaztetxeko Hacklaba (Hacker laborategia) da. Udondo Gaztetxea, berriz, Leioan (Bilboko periferian) okupatutako eta autokudeatutako gizarte zentroa da. Metabolik duela lau urte baino gehiago sortu zen, 2001. urtean Udondon Estatuko bigarren hackmeetinga egin zenean. Topaketa hura amaitzerakoan, zonaldeko hainbat partaidek gaztetxearen barruan talde iraunkor bat antolatzea erabaki genuen, **teknologiarekin eta bere alderdi sozialekin** esperimentatzen eta ikasten jarraitu ahal izateko. Bere ateak ireki zizkigun gaztetxearen eta elkar ezagutzeko aukera eman zigun hackmeetingaren eraginez, guk ere **asanbladatan** biltzeari eta horizontalki kooperatzeari ekin genion.

Gure izaerari buruz teorizatzen hasi eta gure ekintzak arrazoirik gabe atzeratu ordez, guztion artean **hainbat proiektu** gauzatzen hasteko irrikatan ginen. Hori horrela, jarduera ugariren diseinuan eta burutzapenean parte hartzeari ekin genion. Hala ere, proiektu desberdinak garatzen gozatzen genuen bitartean, gaztetxeko asteroko asanbladei esker eta asanblada birtual iraunkorrari esker (posta elektronikoko zerrrenda baten bidez) gure ekintzak aztertzen genituen, hausnarketa-jarrera mantenduz.

Gure artean interes eta motibazio oso desberdinak zeuden eta daude, hacker terminoarekin berarekin gertatzen den bezala. Baina hori, Metabolikeko partaideentzat, oztopo edo muga izatetik urrun, oso aberasgarria izan da. Izan ere, horrela, proiektu oso desberdinei heltzeko, gure artean ezagutza tekniko eta politikoen fluxu iraunkor bat mantentzeko eta **beti lankidetzara eta ideia berrietara irekita** egoteko aukera izan dugu.

HACKLABA

Gure lehenengo proiektua Gaztetxeko espazioetako bat (liburutegia/zinea) egokitzea izan zen, bertan **hacker laborategiaren alderdi fisikoa** ezarri ahal izateko. Margotzeko, garbitzeko eta altzariak egokitzeko aprobetxatzeaz gain, materiala biltzen hasi ginen: elikadura-kableak, entxufeak, sare-kableak, pantailak, ordenagailuak, ordenagailu-piezak, inprimagailuak, hub-ak, eta abar. Material hori guztia gaztetxean egin zen hackmeetingeko hondarretatik, hacklabeko jendeak egindako ekarpenetatik, Udondoko jendeak egindako ekarpenetatik eta zenbait Garbiguneetara egin genituen bisitetatik lortu genuen. Pixkanaka, zenbait ordenagailu muntatzen eta instalatzen joan ginen, **GNU/Linux-ekin**. Era berean, ordenagailu horiek elkarrekin lotzeko sare txiki bat ezarri genuen. Interneterako sarbide seguru bat bermatuko zigun firewall bat instalatu eta konfiguratu genuen; guretzat nahiz Udondotik pasatzen den ororentzat, gaztetxeak beti baititu bere ateak irekita. Hori horrela, bi ordenagailu ezarri genituen gaztetxeko zonalde komunean, ziberkafe modura, eta oso harrera ona izan zuten. Barran musika jarri ahal izateko ekipo bat prestatzeko ere eskatu ziguten, eta hala egin genuen. Hacklabaren barruan, gunea bat “tramankuluentzat” gorde genuen; izan ere, etengabe, hondatutako hardwarea frogatzen nahiz piezak aldatzen ibili behar genuen, bai ordenagailuak hobetzeko eta baita bururatzen zitzaizkigun gauzekin esperimentatzeko.

Hacklaba mantentzeko lanean aritu gara urte hauetan guztietan, garai hobeeekin eta garai okerragoekin, baina, zalantzarik gabe, ikasteko eta Metabolikaren alderdi fisikoa autokudeatzeko laborategi batez hornitzea onbideragarria eta oso atsegingarria izan da.

IKASTAROAK

Zenbait ordenagailu erabilgarri izan eta sarea ezarri bezain laster, guretzat interesgarriak ziren gaiei buruzko ikastaroak, lantegiak eta mintzaldiak prestatzen hasi ginen. Alde batetik, guretzako zenbait ikastaro antolatu genituen; izan ere, jendea software libreari (Debian, bash), programazio-hizkuntzei (C, perl, web semantikoa), elektronikari (FM igoilea), adimen artifizialari (RNA, algoritmo genetikoak), eta abarri buruzko ezagutzak trukatzeko irrikatan zegoela ohartu ginen. Baina, berehala, Metabolikentzat kaleko jendeari teknologia bezalako tresna garrantzitsu baten eta bere alderdi sozialen berri emateak zuen garrantziaz konturatu

ginen. Horrela, hardwareari, sistema eragileei, sareei, programazioari eta abarri buruzko oinarrizko ikastaroak antolatu genituen, eta baita software libreari, GNU/Linux-ari, zibereskubideei, kriptografiari, LSSICE legeari eta abarri buruzkoak ere.

Trebatzeko eta ezagutzak elkar trukatzeko (gure artean nahiz kanpora begira) jarduera hori, hacklaba mantentzeko lanak bezala, iraunkor bilakatu zen. Egun, hacklaba eta berau osatzen duten makinak berreraikitzeaz amaitu dugu, eta, hori ospatzeko, ikastaro eta lantegi praktikoen ziklo bat egiten ari gara. Ikastaro horietan gai desberdinak ukituko dira: kartelen maketazioa (GIMP, Inkscape, Scribus), hiru dimentsiotako maketazioa (Python + opengl), programazioa (HTML, PHP, SQL) eta bestekoak (puredata). Hamabost bat ikaslerekin ikastaro gehien dituen ikastaroa jadanik behin baino gehiagotan eman dugun ikastaro bat da. Gure iritziz, ikastaro hori oso garrantzitsua da ikuspuntu politikotik: GNU/Linux ikastaroa, sistema eragile libre hedatuenari buruzko ikastaroa.

KALE-HACKING

Baina denbora honetan guztian, ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak, mahainguruak eta antzeko ekitaldiak antolatzeaz gain, beste gauza asko ere egin ditugu. Jendaurrera begira antolatu genuen lehendabiziko ekintzetako bat **Indymedia Euskal Herria** internet bidezko komunikabidearen lehenengo urteurrenaren ondoriozkoa izan zen. Izan ere, Metabolikek hainbat lotura ditu Indymedia Euskal Herriarekin. Aipatu ekintza horretan, egun oso batez, Bilboko Unamuno enparantzan, *hacking the streets* delako bat egin zen. Horretarako, aulkiak, mahaiak, ordenagailuak, Interneterako sarbidea (*wireless* bidezkoa), megafonia, karpa eta generadore elektriko bat ezarri ziren kalean. Orduan sortu berri zen Gasteizko hacklaba (kakelbont), Librezale eta Indymedia Euskal Herria bera bezalako kolektiboen laguntzaz, hainbat panfleto informatzaile banatu ziren, GNU/Linux-en *install party* bat egin zen, kontrainformazioari eta software libreari buruzko hitzaldiak eman ziren, Indymedia Euskal Herria web orriko argitalpen-lantegi bat eskaini zen, eta abar.

Ekintza hori oso garrantzitsua izan zen Metabolikentzat. Izan ere, metabolikoen arteko koordinazio- eta prestakuntza-lan handia egin zen. Gainera, gure hacklabaren kideko beste kolektiboekiko harremanak estutzeko balio izan zigun.

MONEY 4 THEM

Metabolikek gauzatu zuen beste ekintzetako bat, oihartzun sozial handia izatera iritsi zena (komunikabideetako oihartzunaz gain), Bilboko Euskalduna Jauregiaren aurrean egin genuena izan zen. IT4ALL (ingelesez **“informazioaren teknologiak guztiontzat”** esan nahi duen hitz-joko bat) izeneko kongresu bat egingo zela jakin genuen. Aipatu kongresuan parte hartzeko, paradoxikoki, 700 euro ordaindu behar ziren. Eusko Jaurilaritzak antolatutako kongresu horretan teknologien gizarteratzearen eta gizartearen teknologizazioaren diskurtsupean beren produktuak saltzea eta gu guztiok beren informazioa kateatzea besterik bilatzen ez zuten *lobby* eta korporazio handiek parte hartzen zuten. Ondorioz, Metabolikek money4them (**“dirua beraientzat”** esan nahi duen ingelesezko beste hitz-joko bat) izeneko informazio-kanpaina abiarazi zuen, eta ekintza telematiko zuzena gauzatu zuen Euskalduna Jauregiaren parean, teknologia egiteko beste modu asko daudela eta hori ez dela arraila teknologikoa murrizteko bidea erakutsiz.

Hori horrela, 2003ko otsailaren 6an, Metabolikeko jendea eta Udondo Gaztetxeko jendea **Euskalduna Jauregiaren parera** joan ginen, kongresuaren formari eta hondoari dagokienez protesta egiteko. Pinguinoz mozorrotutako bi pertsona kongresura bertaratu ziren eta une horretan Euskalduna Jauregitik irteten ari ziren pertsonen artean panfletoak banatzen hasi ziren, eta, bitartean, BilboWireless hariarik gabeko sare metropolitarrak konektatutako bi eskuko ordenagailuk zuzenean argitaratu zuten protestaren berria Indymedia Euskal Herria atarian. Deialdira aurkeztu ziren kazetariez gain (bitxia bada ere, guztiak komunikabide alternatiboetako kazetariak ziren baita ere), gure *stand* alternatibora ikusnahi asko bertaratu ziren, **“Otra tecnología es posible, konekta zaitetz askatasunez”** lelopeko pankarta batek eta megafono batek ekitaldia animatzen zuten bitartean.

Ekintza hori gauzatu ahal izateko beste kolektibo askoren laguntza jaso genuen, baina, ziurrenik, ekintza horretatik ateratako alderdi positiboena da, gure balioen kontrako balioak aldarrikatzen zituen eta halako tamaina eta garrantzia zuen ekitaldi baten aurrean, gu erreakzionatzeko eta horri aurre egiteko ekintza

eraginkor bat gauzatzeko gai izan ginela.

WIRELESS JARDUNALDIAK

Wireless terminoa behin baino gehiagotan azaldu da jadanik testu honetan; izan ere, haririk gabeko sareek aukera oso interesgarriak eskaintzen dituzte informazioa libreki trukatu ahal izateko. Hori horrela, azkeneko urteetan teknologia horretan oinarritutako sare metropolitarrak libreak agertzen joan dira mundu osoko hiri ugarietan. Bilbo Handian ere geroz eta jende gehiagok du *wireless* adabegien sare bat ehuntzeko interesa, eta duela zenbait urtetik udalerritako desberdinetako kolaboratzaile ugari adabegi berrien gaikuntzan eta horien arteko interkonexioan ari dira lanean.

Proiektu horrek guretzat zuen interes estrategikoa kontuan izanik, eta hainbat metabolikak **Bilbowireless** delakoan parte hartzen genuela aprobetxatuz, Udondo gaztetxean teknologia horiei buruzko jardunaldiak antolatzea erabaki genuen. Horretarako, gaztetxearen laguntza izan genuen azpiegitura prestatzeko, eta Metabolik, MadridWireless, Anuestroaire (Gasteizko *wireless* komunitatea) eta BilboWireless beraren hitzaldiak izan genituen.

Gure xedea izan zen asteburu batez, leku berean, zonaldean **haririk gabeko sare libreak sortzeko** interesa zuen jendea biltzea, Bilbowireless indartzeko eta talde desberdinen arteko lankidetzak eta proiektu komunak sortzea sustatzeko. Orduan, oraindik, Estatu mailan gai horri buruz egiten ziren lehendabiziko jardunaldietako bat zen, eta jardueren programa nahiko osatua zen (antena erakitzeko lantegi bat ere eskaintzen zen); horregatik, jende askok parte hartu zuen, eta proiektua oso ondo baloratua izan zen. Hala ere, egia da BilboWireless ez zela guk nahi bezain beste indartu.

X-EVIAN

Metabolikeko zenbait kidek Eviango (Frantzia) kontragailurrean parte hartu zuten, 2003. urtean G8a bildu zenean. Izan ere, ekitaldi mota honetan, egun gutxi epe batean, gertatzen zen guztia estali ahal izateko Komunikabide Zentroak muntatzen direla ikusi zen. Hori horrela, teknologiaren ikuspegitik, tresna asko behar ziren; berriak argitaratzeko, bideoak, argazkiak eta audio-elkarrizketak editatzeko, internet bidezko zuzeneko irati-igorpenak egiteko, beste ekintzaile batzuekin posta elektronikoz edo txat bidez komunikatzeko, eta abararako.

Horregatik, Metabolikentzat, LiveCD moduan (ordenagailua CDa barruan duela piztu besterik ez da egin behar) funtzionatuko lukeen eta tresna horiek guztiak batera eskainiko lituzkeen banaketa bat sortzeko ideia oso interesgarria zen. Hori horrela, gure kide bat **Debianen oinarritutako LiveCD motako GNU/Linux** banaketa bat sortzen saiatu zen, eta ekimen hori aprobetxatuz, bai ingelesez eta baita gaztelaniaz eta euskaraz ere funtzionatuko zuen proiektu bat abiaraztea erabaki genuen. Ondoren, sistema eragile osoa disko gogorrean modu iraunkorrean instalatzeko aukera eta ziberkulturrari, ziberreskubideei, hackmeetingetako hitzaldiei eta abarri buruzko copyleft materiala biltzen duen artxibo bat gehitu genizkion proiektuari.

Pixkanaka, X-Evian hazten joan da, eta hacklab eta hackmeeting desberdinetan, gure jarduerarekin zerikusia duten hainbat eta hainbat jardunaldi eta ekitalditan, eta, duela gutxi, Brasilen egin den 2005eko Munduko Foro Sozialean banatu dugu. Horietan guztietan harrera oso ona izan du.

ETA GEHIAGO

Egia esan, lau urte hauetan proiektu asko hasi edo gauzatu ditugu (gehienak hemen aipatutakoak baino txikiagoak), nahiz eta testu honetan deskribatutakoak interesgarrienak izan. Beraz, aipatu gabe utzi ditugu Metabolikek Hackmeetingak, Beroketak eta A-n-t-e-n-a-k bezalako ekitalditan izan dituen partaidetzak; komunikazioaren teknologekin gauzatzen dugun etengabeko esperientzia (posta-zerrendak, web orriak, weblogak, wiki, txatak, eta abar); eta GPL, Leioako jaietako *hacking de streets*, Piritako irati librerako irati-prograa eta elektronika tailerra bezalako proiektu txikiagoak.

Zuk libreki kopiatu, banatu eta komunikatu dezakezu obra hau, obra eratorriak gauzatu ditzakezu eta helburu komertzialarekin erabili dezakezu, betiere ondoko baldintzok betez: obraren jatorrizko egilea aitortu eta aipatu behar duzu, eta obra hau aldatzen edo eraldatzen baduzu, edo obra eratorri bat sortzen baduzu, obra hori honen berdin-berdina den lizentzia baten mende bakarrik banatu dezakezu. Obra berrerabiltzerakoan edo banatzerakoan, oso argi utzi behar dituzu obra honen lizentziako terminoak. Lizentzia honetako baldintzetako edozein bertan behera gera daiteke, autorearen baimenaz. Legezko erabileretatik eratorritako eskubideak edo bestelako mugak aurreko guztiaz salbuesten dira.

Aurreko hori jatorrizko lizentzia osoari buruzko ohar bat besterik ez da. Lizentzia osoa ikusteko:

Copyrighti buruzko legediaren erabilera estrategikoak, legediari buelta eman eta informazioaren zirkulazio librea ahalbidetzeko zertuak, ez du inolaz ere adierazten Metabolik BioHacklabek legedia hori onartzen zein errespetatzen duenik.